



“B” GUTUN-AZALAREN ESKAINTZEI BURUZKO TXOSTENA
BALIO-JUDIZIO BATEN MENDEKO BALORAZIO-IRIZPIDEAK

ESPEDIENTEAREN DATUAK

- Objektua: Mutrikuko Saturraran hondartzako kantinaren, eta komunen ustiapena.
- Epea: 2021 eta 2022ko udako denboraldiak, eta bere kasuan, 2023rako luzapena..
- Eskaintzak aurkezteko epea: maiatzak 20.
- Prozedimentua eta esleipen-modua: Irekia eta lehiaketa bidez, urgentziazko prozedimentuz.

AURKEZTURIKO ESKAINTZAK

Aurkeztutako eskaintzak edo proposamenak lau izan dira:

- 1 zerb.ko proposamena. Erregistroko 832 sarrera zenbakia. Jon Iñaki Iturrino Agirre jauna.
- 2 zerb.ko proposamena. Erregistroko 870 sarrera zenbakia. Aner Elezgarai Arrizabalaga jauna.
- 3 zerb.ko proposamena. Erregistroko 875 sarrera zenbakia. Leire Sabaris Arruabarrena andrea.

Prozedimendu honetan aurkeztu diren hiru eskaintzagileen gaitasun finantzario-ekonomiko, tekniko eta profesionala eta galdatutako gainerako agiriak aztertuta, hirurak ontzat eman dira.

BALORAKETA IRIZPIDEAK ETA HAUEN HAZTAPENA

Oinarrietan zehazten diren balio judizio baten menpe dauden irizpideak kontuan izanik txosten honetan kontratazio mahaiaren iritzia ematen da, datu objektiboak kontutan hartuta eman beharreko balorazioaren proposamen bat egiten delarik. Kontuan hartu diren irizpideak, erabiliko diren giza baliabideak, aktibitate programa eta instalazioen gestioa eta azkenik instalazioetarako egiten diren hobekuntza proposamenak. Baita ere aipatu, eskaintzen ezaugarri ahal den objektiboenetan eta judizio baliospenen menpe gutxien daudenak nabarmentzen saiatu da objektibotasuna ahal den neurrian bermatzeko

1.- Aktibitate programa eta instalazioaren gestio plana

Atal honetan zerbitzuaren antolaketa eta kudeaketa orokorra baloratuko da eta bereziki giza baliabideak eta honekin harremanetan zerbitzua nola antolatuko den.

1. Ion Iñaki Iturrino Aguirre jauna: Kudeaketa-plana eta jarduera-programa aurkeztu ditu. Dokumentu horietan xehetasunez jasotzen dira jarduera bakoitzaren arduraduna eta ordutegia, hala nola mantentze eta garbiketa lanak, taberna, sukaldea eta terrazaren kudeaketa. Kontrol ekonomiko prozesu mapa ere aurkezten du. Bost hobekuntza proposatzen ditu, adibidez, 80 m²-ko egurrez egindako terraza jartzea, sukalde eta tabernako ekipamendua osatzea, ingurumena zaintzea, kultur jarduerak gauzatzeko agertoki bat jartzea, eta turismoari buruzko informazioa edukitzea.

2. Aner Elezgarai Arrizabalaga jauna:

Kantinaren ekipamenduari buruz behar den material guztia jarriko dela esaten du. Orduategia eta terraza zerbitzua ere zehazten du modu orokorrean. Era berean, eskaintza gastronomikoa definitzen du. Komunen garbiketari egiten dio erreferentzia, eta birziklatzeari garrantzi handia emango diola jasotzen du. Jardueren aldetik, egoera hobetu ahala kontzertu txikiak antolatzea proposatzen da.

3. Leire Sabaris Arruabarrena and.:

Kantinako ekipamenduari egiten dio erreferentzia oro har (hozkailuak, kafe-makina, izotz-makina, etab.). Eskaintza gastronomikoa ere definitzen du, herriko produktuei lehentasuna emanez. Birziklatzeari egiten dio erreferentzia, eta garrantzi handia ematen dio garbitasunari, pandemia-egoera dela eta, eta esaten du oso neurri zorrotzak hartuko direla. Kultura bultzatzeko ekintzak antolatuko dituztela esan du.

2.- Erabiliko diren giza baliabideak

Irizpide honetan erabiliko diren giza-baliabideak baloratuko dira, bereziki kontuan izango da argi azaldu izana eskaintzetan lanpostuek zein kualifikazio profesional izango duten eta izango dituzten funtzioak eta euskara maila.

1. Ion Iñaki Iturrino Aguirre jauna:

Atal honetan, kantina kudeatzeko organigrama, orduategia, eta langileen lanaldiak aipatzen ditu. Langileen datu zehatzen zerrenda aurkezten du, hau da, bakoitzaren NAN, lanpostuak, funtzioak, esperientzia eta ezagutzak ostalaritza arloan. Adierazten du gainerako langileentzat ostalaritzako esperientzia, hizkuntzen ezagutza (euskara, bereziki) eta langabezian egotea baloratuko direla.

2. Aner Elezgarai Arrizabalaga jauna:

Ez ditu zehazten langileen eginkizunak, eta ez du datu zehatzik ematen. Kontratatzera kontuan hartuko diren irizpideei egiten die erreferentzia. Adierazi du langile guztiei eskatuko zaiela manipulatazaila-txartela.

3. Leire Sabaris Arruabarrena and.:

Proposamen honek ez du lan egingo duten pertsonen datu zehatzik ematen, nahiz eta aipatzen duen langileen kontratazioan garrantzi handia izango duela langabezian egoteak, edota ikasleak izateak eta euskaraz egoki hitz egiteak. Zerbitzua emateko langileen kopurua eta funtzioak aipatzen ditu. Ostalaritza sektorean esperientzia duela esaten du.



Mutrikuko Udala

ONDORIOA ETA PROPOSAMENA

Kontuan harturik baloraketa osotariko emaitza ondoko taulan jasotzen da:

ESKAINTZAGILEAK	Aktibitate programa/gestio plana (10 puntu)	Giza baliabideak (10 puntu)	GUZTIRA (20 puntu)
Ion Iñaki Iturrino Aguirre jauna:	7	8	15
Aner Elezgarai Arrizabalaga jauna	5	3	8
Leire Sabaris Arruabarrena and.	5	4	9

Ondorioz, "C" gutun-azala, hau da, **Proposamen Ekonomikoa eta balorazio automatikorako irizpideak**" ekainaren **1ean** irekiko da, **goizeko 12etan**, Mutrikuko Udaletxeko batzar aretoan, **ekitaldi publikoan**.

Mutrikun, 2021eko maiatzaren 31n

KONTRATAZIO MAHAIKO IDAZKARIA

Ioseba Iribar Garrastazu